2010UPAU0001
P.A.U. -A.U.2 MIRAMAR-

Gaia: **H.A. 12 Miramar, ekimen unitateko HIRIGINTZAKO JARDUKETA PROGRAMA**
Asunto: **PROGRAMA DE ACTUACIÓN URBANIZADORA A.U.2 MIRAMAR**

**Hasierako onarpena. / Aprobación inicial**

Interesatua: **UMPRO 2000, S.L.**

**Ikusirik** 2010eko abenduaren 10ean Xabier GOIRIGOLZARRI MALAXETXEBARRIA jaunak, UMPRO 2000 S.L.ren ordezkari gisa, MIRAMAR Hotelaren Xehetasun Azterketa eremuko Hirigintza Ekimen Programaren proposamena aurkeztu zuen tramitatu eta onartzeko.

**Ikusirik** 2010eko abenduaren 23an udaleko Arkitektoak egindako txostenaren bistan Hirigintza Batzordeak aipaturiko Hirigintza Ekimen Programa hasieraz onartzearen aldeko irizpena egin zuela.

**Kontuan hartuz** Euskal Herriko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak –Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak- 158. artikuluaren arabera, sustatzaileak dokumentuaren behin-betiko onarpenaren aurretik udaletxeko kontuhartzailetzan urbanizazio kostuaren %1eko bermea jarri beharko duela.

**Kontuan hartuz** lege berberaren 156. artikuluak hasierako onarpenaren akordioa jendearen aurrean jartzeko eta ekimenak ikutzen dituen ondasun eta eskubideen jabeei jakinarazteko betebeharrak ezartzen dituela.

Administrazio espedientearen dokumentazioa ikusirik eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.j artikuluak ezartzen dituenarekin ados zera,

**ERABAKI DUT**

1. **A.U. 2 MIRAMAR unitatea urbanizatzeko jarduketa-programaren espedienteari hasierako onarpena**

**Resultando que** en fecha 10 de diciembre de 2010, D. Xabier GOIRIGOLZARRI MALAXETXEBARRIA, en representación de UMPRO 2000, S.L., presentó la propuesta del Programa de Actuación Urbanizadora del ámbito del Estudio de Detalle del Hotel MIRAMAR, para su tramitación y aprobación.

**Resultando que** a la vista del informe emitido por el Arquitecto municipal el día 23 de diciembre de 2010, la Comisión de Urbanismo dictaminó favorablemente la aprobación inicial de dicho Programa de Actuación Urbanizadora

**Considerando que** el artículo 158 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, establece que antes de la aprobación definitiva del documento, la parte promotora deberá depositar en el servicio municipal de Intervención un aval equivalente al 1% del coste de urbanización.

**Considerando que** el artículo 156 del mismo precepto legal establece la obligación de someter el acuerdo de aprobación inicial a información publica y de notificacion a los titulares de bienes y derechos afectados por la actuación.

A la vista de la documentación obrante en el expediente administrativo y en virtud del artículo 21.1.j) de la Ley 7/1985 Reguladora de Bases de Régimen Local,

**RESUELVO**

1. **Aprobar inicialmente el expediente del Programa de Actuación Urbanizadora de la A.U.2 MIRAMAR, teniendo en**

ematea, betiere, kontuan izanik dokumentuaren behin-betiko onarpenaren aurretik, sustatzaileak udaletxeko kontuhartzailetzan urbanizazioaren kostuaren %1eko bermea utzi beharko duela, Euskal Herriko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak –Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak- 158. artikuluan ezartzen duenaren arabera.

2. Espedientea jendearen aurrean jarri 20 lan eguneko epean, GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN dagokion iragarkia argitaratuz eta ekimenak ikutzen dituen ondasun eta eskubideen jabeei jakinarazi, interesdunek aztertu ahal izan dezaten eta bidezko jotzen dutena legazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Dokumentuaren ezarpen esanguratsuenak ondorengoak dira:

- Eremua garatzeko sistema: Hitzarmen sistema.
- Ekintza Unitatea: A.U.02 MIRAMAR HOTELA – UDAL FRONTOIAREN INGURUNEA –ren Xehetasun Azterketa eremuari dagokio.
- Berdinbanatzeko proposamenaren epeak finkatzen dira.
- Hirigintza lanak egiteko epeak, atalen egutegia eta gelditzen diren orubeetan eraikitzeko epeak.
- Hirigintza-jarduketak sortzen dituen gainbalioetan komunitateak izan behar duen partaidetza dela eta, Udalari ezinbestez eta lagapenez eman beharreko lursailen kokapenaren proposamena: Bere balioaren ordainketa eskudiruan.
- Ez da inongo berralokatzerik kontuan hartzen.
- Hirigintza obraren, lursailen eta bere kasuan, dotazio publikoei dagozkien eskubideen lagatzearen epeak.
- Hirigintza obren mantenua.

cuenta que, antes de la aprobación definitiva del documento, la parte promotora deberá depositar en el servicio municipal de Intervención un aval equivalente al 1% del coste de urbanización, tal y como dispone el artículo 158 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

2. Someter el expediente a información pública por un plazo de 20 días hábiles, mediante la publicación del anuncio correspondiente en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, y la notificación a los titulares de bienes y derechos afectados por la actuación, a fin de que los interesados puedan examinarlo y presentar las alegaciones que estimen procedentes.

El documento contiene como determinaciones más significativas las siguientes:

— Sistema de Actuación: Sistema de Concertación.
— Unidad de Ejecución: corresponde al ámbito del Estudio de Detalle de la A.U.02 HOTEL MIRAMAR – ENTORNO FRONTON MUNICIPAL.
— Plazos para la propuesta de equidistribución.
— Plazos para la realización de las obras de urbanización, calendario de fases y plazos de edificación de los solares resultantes.
— Propuesta de localización de los terrenos de cesión obligatoria al Ayuntamiento en concepto de participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la ordenación: Abono en metálico de su valor.
— No se contemplan realojos de ningun tipo.
— Plazos de cesión de la obra de urbanización, de los terrenos y, en su caso, los derechos correspondientes a las dotaciones públicas.
— Conservación de las obras de urbanización.

**DEBA**
Hiriko Udala

Ayuntamiento
de
**DEBA**

Ebazpen hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Interesa dutenek horren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute administrazioarekiko auzien Donostiako epaitegian, ebazpena argitaratu eta bi hilabeteko epean. Hala ere, aurrez interesdunak aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezake egintza eman duen organoan, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean. Horrez gain, beharrezkoa iruditzen zaion beste edozein errekurtso ere aurkez dezake.

La presente resolución es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación. No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación ante el órgano que dictó el acto. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Deban, 2010eko abenduaren 23an.
ALKATEA,

Jesus Mari Agirrezabala Goitokia

**-UMPRO 2000, S.L.**
**-Herederos de Churruca Urbieta: Miren Churruca Urbieta; Mª Victoria Churruca Urbieta; José Antonio Churruca Urbieta**